

JOTARAUA

GORA-BAZTAN-ELIZONDO.....Lizarrako Aita Hilario OLAZARAN
(1894-1973)

GIPUZKOAKO ERESERKIA.....Ezezaguna/Luis URTEAGA ITURRIOZ
(1882-1960)

AUNITZ URTEZ*.....Yon OÑATIBIA AUDELA***
(1911-1979)

RAPSODIA II..... Luis URTEAGA ITURRIOZ
(1882-1960)

EHUN DUKATEKOA (Soinu zaharra).....EZEZAGUNA

Bakarkako dantzaria: Mattin Etxebeste

SALTOKAKO ZORTZIKOA.....Ezezaguna/J.Ig. ANSORENA MINER
(1953)

Bakarkako dantzaria: Mattin Etxebeste

KAZKAZURIK BERE BURUARI.....J.J. URBIETA YARZABAL***
(1873-1932)

OZKORRI-ERREXA.....Lizarrako Aita Hilario OLAZARAN**
(1894-1973)

MENDIGOIZALEAK*..... Lizarrako Aita Hilario OLAZARAN**
(1894-1973)

AZKEN MARTXA (Txanton Piperri-tik)*.....Buenaventura ZAPIRAIN**
(1873-1937)

IRUÑATARRA.....Celestino POZUETA GALARZA
(1897-1968)

ZUZENDARI: Aitor AROZENA MUXIKA

*Abesbatzaren laguntzaz

**Jose Ignazio Ansorena Miner-ek moldatuak

*** Aitor Arozena Muxika-k moldatuak

AUNITZ URTEZ

Aunitz urtez, Aunitz urtez!
Plaza hontako jende orori
Osasun on Baztandarrai
Ohore egiñaz Mutil Dantza-ri

Larai, tranlarai....
Baztanen eder zelai, mendi eta baso;
Ta Mutil-dantza ederrago
Aitonen aitak sorturiko
Gure dantza danak baño lehenago.

Bi urrats aurrera, itzul ta bira,
Ta lutil lerroa plazan jira;
Besoak zintzilik agiri dira,
Mutil erkada dijoala aintzina

Mutil dantza mutillendako
Antziñako ohituretan
Horrela guk jaso gendun
Baztandarren ibarretan.

Dantza berria sortu zagan
Hain urrats jatorrenetan
Neska-mutillak batera
Dantza ditezen plazetan

Ohitura danez
Txaloak jo, bai!
Nafarroako
Mutil dantzaren ohorez
Euskalerriko dantzaetan
Lerdenena dan
Mut il dantzaren ohorez

KAZKAZURIK BERE BURUARI

Kantatutzeroa nua bertso bat edo bi,
Kaskazurik jarriyak bere buruari;
gustoik ez diot hartzen bizimoduari,
deskalabrua pranko gertatu zait neri.

Kojo gelditu nintzan txiki-txiki tandik,
paretera iyo ta erorita handik;
informe txarrak ditut gaur askorengandik,
neretzat berri onik ez dator inñundik.

Dama batek nahi ziran karga hau arindu,
pretenditu ninduen, ez nion agindu;
amets gaixtua pranko geroztik egin du,
gaixua urriki nuen ni hartu banindu.

Aitak ere nahi zuen biyok ezkontzia,
bañan etzan posible ni ondo portatzia;
hobe da zer datorren konsideratzia,
nolanahi hartzekua ez da gurutzia.

Txiki-txikitandikan arro ta tunante,
kontrariyua pranko, gutxi dut amante;
griña gaizto guziak tiratzen dirate,
aitzurak eta palak mudatuko naute.

Parrandan ibiltzen naiz bastante itxuski,
kargu hartzen dirate ez bat eta ez bi;
zierto dakidala ibiltzen naiz gaizki,
jeniyu gaixtu onek galduko nau noski.

Ez nau inkomoratzen besteren lujuak,
deklaratzera nua nere enojuak:
zurrutak tiratzen nau, pixka bat jokuak,
atarramentu onik ez dauka kojuak.

Kartzelan sartu naute kulpa dedalako,
erraz ematen zaio pobriari topo;
aberatsa izan banitz ez niñuten joko,
gaixtua banaiz ere pagatzen det bapo.

Horra bertso berriyak Kaskazurik para,
jendiak jakitia komeni dana da;
netzat gustatzen danik inñor baldin bada,
Zurko'n bizi naiz eta juan zaitztezte hara.

MENDIGOIZALEAK

Eup! Eup! Mendira! Goazen Gora!
Aufa! Aufa! Mutillak! Goazen, goazen, gora!
Mendigoizaleak! Argia hasten da

Laster bildu gaiten meza entzutera
Eup Mutillak agur orain bai aurrera
Alaiak gutiok mendi tontorrera!

Yainkoaren begien aurrean
Zerupean gora Euskal Herria
Goazen goazen, uju ta irrintzi
Gora beti gure Euskal Herri!

Mendigoizaleak, hots mendiak gora
Beko iskanbilak erabat utzita
Hara! Mendietan sortzen eguzkia
Gure alaitasun eguzki argia

Yainkoaren begien aurrean...

AZKEN MARTXA

Euskal herriko semiak/alabak gera
Zor diyogunak biziya
Beraren alde emango degu
zañetako odol guziya

Bere lege ta hizkuntza ederra
Degu nahitasun haundiya
Hillarte oju egingo degu
Bizi bedi Euskal Herriya

Xanixtebanak **2023**

46. HERRI KONTZERTUA



1960 Xanixteban eguna

PARTAIDEAK

Lartaun txistulari taldea
Donostia, Bidasoa eta Buruntzaldeko txistulariak

Lartaun abesbatza

ANTOLATZAILEA

Lartaun Txistulari Taldea

LAGUNTZAILEA

Euskal Herriko Txistulari Elkarte

BABESLEA

Oiartzungo Udala

Eguna: Abuztuak 3, Osteguna

Tokia: Kontsejupea

Ordua: 12tan